

Literatura Lehiaketa  
Haur eta gazteentzat  
EUSKARAZ

XXVII  
2016



Certamen Literario  
infantil y juvenil  
en euskera



Ayuntamiento de Barañaín  
Barañaingo Udala



Udalaren euskara  
zerbitzua  
Servicio municipal  
de euskera



# XXVII CERTAMEN LITERARIO INFANTIL Y JUVENIL EN EUSKERA

Argitaratzen diren lan hauek Barañaingo Udalak 2016ko udaberrian antolatutako haur eta gazteen-tzako literatura lehiaketan izan dira sarituak. Guztira 214 lan aurkeztu ziren eta epaimahaian pertsona hauek egon ziren:

## EPAIMAHAIA • JURADO

### LEHENDAKARIA • PRESIDENTA:

Ainhoa Oyaga Azcona

### EPAIMAHAIKIDEAK • MIEMBROS DEL JURADO:

#### Alaitz Institutuko irakasleak • Profesorado Instituto Alaitz

Jokin Muñoz  
Josu Goienetxe  
Lohitzune Nuin  
Uxue Arbe

#### Alaitz Ikastetxe Publikoko irakasleak • Profesorado C.P. Alaitz

Iñaki Andueza  
Jose Luis Ladrero

#### Sahats-IKA Euskaltegiko irakasleak • Profesorado Euskaltegi Sahats-IKA

Ascen Argandoña  
Josu Asurmendi  
Josu Mujika  
Aitziber Garralda

Estos trabajos que ahora se publican han sido premiados en el certamen literario infantil/juvenil en euskera, organizado por el Ayuntamiento de Barañaín en la primavera de 2016. En total se presentaron 214 obras, y el jurado estaba formado por las personas anteriormente citadas.

### ARGITALPENA • EDICIÓN

Barañaingo Udala-Euskara Arloa / Ayuntamiento de Barañaín-Área de Euskera

### DISEINUA • DISEÑO Ttipi-Ttapa

### INPRIMAKETA • IMPRESIÓN Kulturkari

### LEGE GORDAILUA • DEPÓSITO LEGAL NA 1015-2016



### AURKEZPENA

Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi dizkizuet haur eta gazteentzako euskarazko literatura lehiaketa honetako parte-hartzaile guztioi, zuen ekarpenik gabe ez bailegoke lehiaketarik. Bigarrenik, lehiaketan sarituak izan zareten guztioi, liburuxka honetako ipuinen eta bertsoen egileak zareten herriko haur eta gazteei alegia, zorionak! Lan hauek irakurtzerakoan gozatuko duzue-lakoan nago.

Urtez urte, era batean edo bestean, jarduera honek jarraipena izatea ahalbidetu duzuenoi ere zorionak eta eskerrak emateko aukera ez dut galdu nahi; izan ere, 2016. urtean XXVII. edizioa heldu gara.

Duen harrera onaz jabeturik, beren hizkuntzen artean euskara duten haur eta gazteen artean duen harrera ona ikusirik, euskarazko literatura lehiaketa hau sustatzen jarraituko dugu. Hartara, datorren urtean 28. edizioa antolatuko dugu, eta uste dut nabarmentzekoa dela hori.

Nire animoak helarazi nahi dizkizuet, literatura lehiaketa hau aberasten eta horretan parte hartzen jarrai dezazuen eta euskara bizitzako arlo guztietara zabaltzea animatzen zaituztegu.

Agur bero bat eta esker anitz.

### PRESENTACIÓN

En primer lugar daos las gracias a todas y todos los participantes en este certamen literario infantil y juvenil en euskera, ya que sin vuestra participación este certamen no sería posible.

En segundo lugar, quiero felicitar a todos y todas las ganadoras, autores de los cuentos y bertsos que a continuación quedan reflejados en este libro, escritos por niñas, niños y jóvenes de nuestra localidad, y que con toda seguridad disfrutaráis con su lectura.

No quería dejar pasar esta oportunidad para felicitar y agradecer a todas las personas que de una manera u otra han hecho que esta actividad haya tenido continuidad a lo largo de los años llegando en 2016 a su XXVII edición.

Debido a su buena aceptación seguiremos fomentándolo, ya que gracias a la buena acogida que tiene entre niñas, niños y jóvenes de Barañáin que tienen como una de sus lenguas el euskera, el próximo año convocaremos la 28ª edición, y eso creo que es un signo muy importante. Os animo a que sigáis enriqueciendo este certamen literario en euskera, participando en él y usando el euskera en todas las actividades cotidianas.

Un cordial saludo y gracias.

Iz. / Fdo.

**AINHOA OYAGA AZCONA**

Hezkuntza, Kultura eta Euskara Informazio Batzordeburua.  
Presidenta de la Comisión Informativa de Educación, Cultura y Euskera.



# IPUINAK MODALITATEA • MODALIDAD CUENTOS

MARIA ETA BERE AHOTSA • Nahia Luqui Bretón

## 1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 3º E

Bazen behin Maria izeneko neska bat. Abestea asko gustatzen zitzaion, bere abeslaririk gustukoena “Chayanne” zen. Maria oso ederra zen, ile horia zuen, begi urdinak, ezpainetako gorria eramaten zuen beti eta beti traje urdinaz janzten zen. Gainera limusinan joaten zen beti. Txakurtxo txiki bat zeukan, Flufli deitzen zen, zuria zen eta begi urdinak zeuzkan. Kantu-txapelketa batean parte hartu behar zuen eta entseatzten hasi zen.

Jonek txapelketa irabazi nahi zuen baina abeslari txarra zenez, ideia bat bururatu zitzaion: hartu zuen ura eta tanta batzuk bota zizkion eta esan zion Mariari:

- Tori ura Maria!!
- Eskerrik asko Jon, baina orain ez dut nahi.
- Bai! Bai! Edan! Eztarria lehorra duzula ematen du...

Mariak edan zuen eta entseatzten hasi zen berriro. Jon korrika joan zen. Mariari ahots zakarra ateratzen zitzaion, ezin zuen ongi abestu.

Maria kezkatuta etxera joan zen eta han magia egin zuen: “Mizkili, Muskulu, ahotsa, ahotsa bueltatu nirekin”

!!!Pluf!!! Maria hobeto jarri zen. Bere ahotsa gero eta altuago eta gero eta politago ateratzen zitzaion. Azkenean kantu-txapelketa eguna ailegatu zen eta Jon ateratzen zenean Flufli txakurtxoa eszenatokiara ateratzen zen, hozka egin zion oinaren eta Jon Ai, Ai, Ai... kexatu zen eta negarrez barrura sartu zen. Gero Maria ateratzen zen eta oso ongi egin zuen. Lehen saria irabazi zuen, kopa bat eta bi sarrera parke akuatiko baterako eman zizkioten. Oso zoriontsu izan ziren.

\*\*\*\*\*

# PAPERA ETA GURAIZEAK • Aitana etxeberria Lujambio

## 2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 3º E

Bazen behin paper bat oso pozik bizi zena paperdenda batean. Egun batean dendariak papera kutxa batean sartu zuen. Han guraize batzuk aurkitu zituen.

Guraizeek jolasten ari ziren eta papera moztu zuten nahigabe, papera hautsi zen eta guraizeak lagundu nahi zion paperari.

Orduan guraizeak galdetu zion paperari:

- Orain hautsita zaudela, forma bat nahi al duzu?
- Bai, ados, soineko bat nahi dut! -Esan zuen paperak.

Guraizeek hasi ziren moztzen soineko luzea, mauka motzak eta purpurina pixka bat bota zituzten soinekoari. Guraizeak marinelaz jantzi ziren. Oso dotore zeuden biak.

Gau hartan festa bat zuten, urtebetetze festa. Arkatzaren urtebetetzea zen eta beste armairuan ospatuko zuten. Festara iritsi zirenean zur eta lur geratu ziren oso dotore zeudelako eta txaloka hasi ziren.

Dantzatu, abestu eta guztiz egin zuten. Oso dibertigarria zen festa, primeran pasa zuten. Azkenik tango bat egin zuten. Geroztik ongi bizi izan ziren.

\*\*\*\*\*

# JARE GALDU DA • Jare Biurrun Mendia

## 1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F • 1º PREMIO: Educación Primaria 3º F

Kaixo! Ni Jare naiz, bederatzi urteko neskatila bat eta gaur ipuin bat kontatuko dizuet.

Bazen behin Jare izeneko neskatila bat, bere gurasoak, ahizpa eta txakurraekin Barañainen bizi zena. Egun batean Jare eta bere familia bizikletaz uda-

berriko soro batera buelta bat ematera joan ziren. Sorora iristean... Bat-batean Jare galdu egin zen.

- Ama, aita, non zaudete!!! Oihu egin zuen Jarek. Izadi-ahizpa, konturatu zenean Jare galdu zela, esan zuen:



-Itxoin. Aita, Ama, non dago Jare?  
 -Egia da!!! Oihu egin zuten gurasoek biek batera. Jarek untxi bat aurkitu zuen soro baten erdian. Hasieran Jare apal baina apalago zegoen, baina untxia ikustean aurpegia pixka bat alaitu zitzaion. Untxia pixkanaka hurbildu eta galdetu zion:

-Zer duzuz?  
 -Ba nire familiarekin nengoan baina galdu egin naiz. Erantzun zion Jarek.


Biak pentsatzen ari ziren bitartean, gurasoak, ahizpa eta txakurra Jare bilatzen ari ziren.

-Lasai egon, nik lagunduko dizut. Oihu egin zuen untxiak.

Untxiek oso usaimen ona dute eta Jarek bere amaren zapi bat zuen. Jarek untxiari zapia eman zion usaintzeko. Minutu batzuk pasa eta gero untxiak Jareren familia aurkitu zuen.

Untxiak Jare non zegoen esan zien. Bat-batean txakurrak Jareren usaina usaindu zuen. Gurasoak eta ahizpa txakurrari segitu zioten.

-Hor dago Jare! Oihu egin zuten denek batera.



Txakurrak untxiarekin jolastu nahi zuen baina untxiak ez zuen nahi.

-Ez duzue nirekin jolastu nahi?  
 Ba zure gainera botako naiz.

Esan eta egin, txakurra untxiaren gainean bota zen.

-Ja, Ja, Ja!!! Barre egin zuten guztiek. Amaieran festa handi bat egin zuten, denak berriz elkar zeudelako.

**ALA BAZAN EDO EZ BAZAN SAR DADILA  
 BARAÑAINGO PLAZAN**



## ANEREN ABENTURAK • Leire Cestau Lertxundi

### 2. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 3ºF

Bazen behin Ane izeneko neska bat txikia eta trebea zena. Telebista ikustea gustuko zuen baina gehien gustatzen zitzaiona bere amarekin eta bere aitarekin egotea zen.

Egun batean aita basora joatea erabaki zuen eta halaxe egin zuten. Basorako bidean kotxean zihozela azeri bat agertu zitzaion eta bere atzaparrek gurpilak kendu zizkien eta ihes egin zuen ezer esan gabe. Falta zen bide osoa oinez egin behar izan zuten. Ze beldurra pasatu zuten. Basora iritsitakoan Ane, konturatu gabe, aita eta amarengandik urrundu zen eta urrundu azkenean galdu egin zen. Anek otso batekin topo egin zuen eta oso trebea zenez zera esan zion:

-Ezetz ni harrapatu.  
 -Baietz. Erantzun zion otsoak.

Eta otsoa eta Ane horrela ibili ziren bata bestea harrapatu nahian. Otsoak ezin izan zuen Ane harrapatu eta handik ihes egin zuen. Bat-batean zerua hodeiez estali zen eta euri zaparrada kristona egin zuen. Ane txikia zenez zulo txiki batean sartu zen. Han sagu txiki bat zegoen.

-Nola duzue izena? - Galdetu zion Anek.

-Jimi saga deitzen naiz. -Erantzun zion saguak.  
 -Jimi saga, nirekin etorri nahi duzuz?  
 -Bai, gustura gainera.

Bi lagunak, Aneren gurasoak bilatzera abiatu ziren. Azkenean gurasoak aurkitu zituzten, beraiek ere Ane bilatzen ari ziren. Anek saga aurkeztu zien eta etxera eramane zuten. Handik aurrera oso pozik bizi izan ziren.





## LAGUNEN ABENTURA ESPAZIOAN • IRATZE MAULEON ARRAIZ

### 1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 4ºE


Kaixo! Ni Izartxo naiz eta egun batean istoriotxo hau gertatu zitzaidan. Aritz mutiko maju bat zen, ile marroixka eta bederatzi urtekoa zen. Berari dena gustatzen zitzaion baina gauza batzuetan hala-holakoa zen: Kirola ez zuen oso ongi egiten. Horretaz gain, badakit zer gauza egiten zuen ongi, hau da, astronomia. Makina bat zen, bazekien dena unibertsoari buruz. Baina bere ikastolan esaten zioten:

- Tontoa zara! Unibertsoa ez du ezertarako balio!
- Bai, hori da! Zer, astronomoa deituko zaitugu edo "astrotononomo"?
- Ja, ja, ja ze ona astrotononomo! Ja, ja, ja...

Aritz minduta zegoen. Baina bi lagun zituen, Itsaso eta Andoni. Aritzek ideia bat izan zuen, nik, Izartxo, entzun niona. Eta Aritzek esan zuen:

- Gaur, gelditu ahal gara nire etxean eta nire etxe-ko patioan lo egingo dugu, izarrak ikusteko. Ongi iruditzen al zaizue lagunak? Bai, noski! Esan zuten Itsasok eta Andonik. Ni, Izartxo, gau hartan agertu nintzen.
- Andoni, Itsaso, zer da hori? Galdetu zuen Aritzek. Nik, Izartxo, esan nuen:
- Kaixo lagunak! Ni Izartxo naiz eta unibertsoa aztertzeraz eramango zaituztet. "Bara" espaziontzian eramango zaituztet. Esan nuen nik, Izartxo.

Hiru haurrak aho irekiarekin geratu ziren. Ondoren, espaziontzian igo eta heru, bi, bat, aurrera! Esan nuen nik, Izartxo, eta unibertsoa joan ginen. Lehenengo, Merkuriora eta Artizarrera joan ginen. Ondoren, Lurretik pasa ginen, baita Martetik ere. Gero, Jupiter ondotik pasa ginen. Saturnon gelditu ginen. Hor, hotz handia egiten zuen baina ez zuen inporta, beraiek, espaziotik aritzeko trajea jantzi eta aurrera! Zein ederki pasatu genuen laurok!



Geroxeago Urano eta Neptunora joan ginen. Baina hotz handia egiten zuenez, Lurrera bueltatu ginen. Hurrengo egunean Aritz, Itsaso, Andoni eta laurok eskolara joan ginen. Heldu ginenean mutil eta neska guztiak zur eta lur gelditu ziren, harrezkero, Aritz errespetatu zuten. Eta orduan neska mutil guztiak lagunak izan ziren betirako. Beti gogoratu, amets egin eta gozatu ahal duzun guztiarekin!  
Lau katu bost txitxo ipuina bukatu da eta kitto!



## ETXE BELDURGARRIA • LEXURI NUIÑ ZAPATA

### 2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 4ºE

Orain delata urte asko hiru neska-mutil bizi omen ziren. Bi mutil eta neska bat ziren. Neska Ane deitzen zen eta kirola asko gustatzen zitzaion. Bietako mutil bat Asier deitzen zen eta abestea asko gustatzen zitzaion. Beste mutila Jon deitzen zen eta dantza egitea asko gustatzen zitzaion. Halloween egun batean Ane, Asier eta Jon geratu ziren etxe batetik bestera joateko eta trukoa ala tratua eskatzera. Ane sorginez mozorrotu zen. Asier banpiroz eta Jon Frankensteinaz mozorrotu zen. Orduan, etxe guztietatik pasa ondoren, esan zuen Anek:

- Etorriko ahal zarete mamua dagoen etxera?

Jon eta Asier ezetz esan zuten eta apustu bat egin zuten.

- Ni barruan sartzen banaiz eta barruan lo egiten

badut, egun batez ni nahi dudana egin beharko duzue. Eta hori ez badut egiten zuek nahi duzuenarengana egingo dut. Ane hor barruan sartu zen eta lo hartu baino lehen mamuarekin hitz egitera joan zen. Ane konturatu zen mamua ona zela eta galdetu zion:

- Bihurta ahal dut hau atrakzio batean? Bai, baina atrakzio bat nik esango dizut. Hau izango da! Sustoa emateko etxea!

-Bale eta zu izango zara sustoa emango duena. Gero ere Errusiar mendia egingo dugu. Hurrengo egunean egunkarietan agertu zen notizia. Jon, Asier eta Ane nahi zutena egin zuten egun batez eta geroztik aurrera denak atrakzioa joaten ziren.

Ala bazan ala ez bazan sar dadila Barañaingo plazan.



## MAIDERREN ALAITASUNA • IRATI AROSTEGI PÉREZ

### 1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.F • 1º PREMIO: Educación Primaria 4ºF

Bazen behin Maider izeneko neskatxa polit eta alai bat. Maiderrek arazo bat zeukan, beti muletekin ibiltzen zen ezin zuelako laguntzarik gabe ibili, hanka bat gabe jaio zelako. Hanka bat falta zitzaion eta neskak hamar urte zituen eta bere ahizparekin, amarekin eta aitarekin bizi zen poz-pozik.

Egun batean, etxebizitzaz aldatu zutenez, eskola berri batera joan behar izan zuen eta iritsi zenean muletekin eta hanka bakar batekin, ikaskideak barre egiten hasi ziren. Horrela egun osoa ematen zuten, barre eta barre, barre eta barre. Egun hartan eskolatik etxera itzuli zenean, gurasoei gertatu zitzaiona kontatu zien. Aitak ez kezkatzeko eta lasai egoteko esan zion eta bere izaera nolakoa zen ikusiko zutela eta orduan barre egiteari utziko ziotela. Goiz batean eskolara iritsi zenean irakasleak ipuin lehiaketa bat zegoela esan zien, eta parte hartzera

animatu zituen. Maider etxera joan zen ipuin lehiaketan pentsatzen. Berak bazekien oso ongi idazten zuela baina gaizki egitearen beldur zen. Etxera heldu zenean gurasoei kontatu zien eta beraiek ipuin lehiaketara aurkeztera animatu zioten. Maider ipuin lehiaketan irabazlea izan zen. A ze poza izan zuen neskak eta bere lagun guztiek!!! Maiderrek oso pentsamendu ona zeukan, eta oso azkarra zen. Saria, gela osoarentzako elurretara bidai bat egitea izan zen eta oso pozik jarri ziren gelakide guztiak. Egun osoa eskiatzen pasa zuten.

Handik aurrera, gelakideek Maiderrekin egoteko jarrera aldatu zuten. Nahiz eta ezberdinak izan, beraien artean ezagutu eta errespetatu behar zirela ikasi zuten gelakideek.

Egia ala gezurra begi bien artean sudurra. Gezurra ala egia sudurraren ondoan begia.

\*\*\*\*\*

## OPOR IKARAGARRIAK • IRDIA COLLAJO OJETA

### 2. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 4ºF

Bazen behin oporrak pasatzera Mexikora joan behar zuen Iruñeko familia bat. Familia hartan bazen neska handi bat hamalau urtekoa, Ane izenekoa; mutil txiki bat, zazpi urtekoa, Urko izenekoa; beraien aita, Mikel deitzen zena eta beraien ama, Sara.

Mexikora joan behar ziren egunean goiz-goiz altxatu eta Bilbora joan ziren hegazkina hartzera Mexikora joateko.

Ordu batzuk pasata Mexikora ailegatu ziren eta harrituta gelditu ziren, ze nolako hondartzak, ze nolako paisaiak, ze nolako zuhaitzak zeuden.

Guztiak builaka elkarri galdetzen zioten hurrengo egunean zer egingo zuten eta aitak galdetu zien zer iruditzen zitzaion txalupa bat hartzen bazuten Mexikoko ibai handienetako bat ezagutzeko, Bravo izena zeukana, eta aho batez guztiek baietz esan zuten. Gero lotara joan ziren.

Hurrengo egunean, Mikelek esan bezala, txalupa bat hartu eta oihanaren erreka disfrutatzea joan ziren.

Denbora bat pasata, primeran zeudela, zerbait arraroa susmatu zuten eta konturatzerako... erreka ur-jauzi batetik erortzen ari ziren.

Ze nolako oihuak!! Hura beldurra, hura!! Behera iristerakoan txalupa apurtuta zegoen, blai-blai baina beraiek salbu, hori bai. Lehortu ondoren bide bat hartu nahi zuten baina ez zekiten nondik joan bide asko zeudelako, eta azkenean, aurrerantz eramaten zuten bidea hartu zuten. Minutu batzuk pasata etxe txiki bat ikusi zuten eta atean jo zuten. Etxe txiki horretatik gizon zahar bat atera zen eta behin gertatutakoa kontatu ondoren familiari gaua pasatzen utzi zion.

Hurrengo egunean gizonak familia hotelera eraman zuen eta familia gustura-gustura hondartzara joan zen eguzkiaz disfrutatzea!!!

Handik aurrera ez ziren ibaira itzuli!!!



## ZUHAITZA • IRATIA GARLAYO CIRIZA

### 1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 5ºE

Istoriu hau gertatzen da ez oso urruti, Gaztelu mendian. Gazteluko tontorrean etxe handi bat zegoen, eta etxearen barruan familia handi bat bizi zen. Familia hori oso ona zen eta horiei esker lortu zuten Gaztelu mendia zuhaitzez eta lorez betetzea. Beren etxearen ondoan zuhaitz handi bat zegoen eta ume guztiak gustuko zuten zuhaitzaren ondoan egotea. Baina egun batean, loreak eta zuhaitzak mugitzen hasi ziren, familiaren etxea ere, Gaztelu mendi osoa mugitzen hasi zen!

Bat-batean lurrikara gogor bat etxeari eman zion, eta etxearen barruan zegoen guztia hilda geratu zen. Zuhaitza oso triste geratu zen, bakarrik geratu zen! Zuhaitza konturatu zen Gaztelu mendiaren ondoan herri bat zegoela eta pentsatu zuen, agian pertsonaren bat mendira igoko zela. Baina gero hobeto pentsatu zuen eta esan zuen:

-Nola etorriko da jendea hau gertatu ondoren.

Mendizale bat Gaztelu mendira igo zen. Mendizalea konturatu zen leku zoragarri bat zela bizitzeko. Baina gero hobeto pentsatu zuen, eta ikusi zuen Gaztelu mendia oso handia zela bera bakarrik bizitzeko eta erabaki zuen bere etxean bizitea.

Zuhaitza berriz oso triste jarri zen. Egun asko pasa ondoren, bi txori zuhaitzean bizitzea erabaki zuten. Zuhaitza oso pozik jarri zen, baina bere gainean ez zeuden bakarrik bi txori. Hauek txoritxoak izan zituzten eta txoritxo horiek beste txoritxoak. Eta horrela familia handi bat izan zuten arte. Baina txoriei zuhaitza txikia geratu zitzairen eta beste zuhaitz batera bizitzera joan ziren, Zuhaitzak pentsatzen zuen berriz bakarrik geratuko zela baina ez, txoriak egun guztiak zuhaitzari konpainia egitera joaten ziren, gainera batzuetan norbait Gaztelu mendira igotzen zen eta horrela zuhaitza ez zen inoiz gehiago bakarrik gelditu.

\*\*\*\*\*

## MIKELEN BIZITZA • JON NAZABAL MARTÍNEZ DE ALBÉNIZ

### 2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 5ºE

Orain dela gutxi, Mikel izeneko mutil bat Bakaikun bizi zen. Aitua eta mehea zen. Larru zuria zeukan, ile marroia eta motza, baita sudur txiki bat ere. Belarri handiak zituen elefantearenak bezalakoak. Eta oso sendoa zen, enbor lodi baten antzekoa. Txikitatik antzerkia egiten zuen eta ostiralero Iruñera joaten zen. Sei urterekin hasi zen eta orain hogeita bat urte ditu. Bera antzerki eskolako onena zen, orduan, "Nagusia" deitzen zioten.

Egun batean EEBBetako antzerki eskola bateko nagusiak Mikeli deitu zion bere antzerkian parte hartzeko. Mikelek bere familia guztiarekin hitz egin zuen eta azkenean joango zela erabaki zuen. Hegazkina eta hotelak bilatzen eta bilatzen lau egun eman zituzten. Azkenean aineratu zen eta hamar orduz itxoin beharko zuen EEBBetara ailegatzeko. Lurreratu eta hotelera joan zen maletak uztera. Sartzean dena oso polita zen eta janariak oso itxura ona zeukan. Begiratu zuen hotelak ea zenbat izar zituen eta bost izar zituen!!! Hiria pixka bat eza-gutu ondoren, ohera sartu eta hurrengo egun arte deskantsatu zuen. Esnatu, arropa jantzi eta gosaldu ondoren, antzerki tokira joan zen. Egunak pasa, egunak etorri eta lagun asko egin zituen. Iruñean

baino lau aldiz gehiago ordaintzen zioten. Ostiralero joaten zen antzerkira. Lagun asko egin zituen, baina batekin ez gehiegi. Biak oso antzezle onak ziren eta orduan konpetentzia handia zegoen. Beti elkartzean zerbait esaten zioten elkarri, gauza txarrak noski.

Antzerkia estreinatu baino aste bat lehenago proba asko egin behar izan zituzten. Ez zuten oso ongi egin, badakizue zergatik? Ezin ziren begiratu, ez ziren iada lagunak. Antzerki eguna iritsi egin zen eta biak oso urduri zeuden, beno, denok. Harritzekoa bada ere antzerkiko hoberenak beraiek izan ziren. Momentu batean, bestea erori egin zen. Mikelek ez zekien lagundu edo ez lagundu. Azkenean lagundu egin zion eta badirudi handik aurrera lagunak egin zirela. Bukatzean, Mikeli mutil bat hurbildu zitzaion, "STAR WARS"eko zuzendaria zen!!! Eta esan zion:

-Antzezle lanetan oso ona zara, beraz, gustatuko litzaizuke Star Wars-eko protagonista izatea?

Ongi pentsatu!! Esan zuen zuzendariak.

Mikel oso pozik zegoen hori entzuteagatik, baina antzerkiko lagunak utzi beharko zituen. Orduan Mikelek galdetu egin zion:

-Zer egunetan joan behar naiz pelikula egiteko? Ostiraletan ezin dut.



## XXVII. Literatura Lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

-Lasai, beste egun batean egingo dugu. Handik aurrera Mikelen lana antzerkia eta pelikula egitea izan zen. Pelikula bukatzean diru asko eta asko lortu zuen. Egundak pasa eta bere jatorrizko etxera joatea pentsatu zuen. Denak agurtu egin

zituena eta hegazkina hartu zuen. Azkenean Bakaikura ailegatu egin zen. Dirua familiarekin konpartitu zuen, baina gehiena pobreei eman zien. Handik aurrera Iruñean antzerkiak egin zituen.



### JOSU ETA APARATU ELEKTRONIKOAK • ASIER JIMÉNEZ GOIKOETXEA

**1. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.F • 1º PREMIO: Educación Primaria 5ºF**

Bazen behin mutiko bat Josu izenekoa. Josuk 10 urte zituen eta Barañainen bizi zen. Ez zitzaion eskola inporta, bakarrik aparatu elektronikoak: telebista, ordenagailuak, tableta, nintendoak... Egundak lurrera erori zen, buruan kolpe bat eman eta konortea galdu zuen. Begiak ireki zituztenean ikusi zuen nola jende guztia kaletik mobilarekin joaten zela denbora guztian. Batzuk kaleargiaren kontra talka egiten zuten, besteak zuhaitzekin... Josu beldurtzen hasi zen eta konturatu zen eskolara joan behar zuela. Eskolan irakasle guztiak mobilarekin eta tabletarekin zeuden, ikasleak, berdin. Etxera joateko ordua zen eta Josuk patioan jolasten ego-

tea erabaki zuen, bere lagunak zeuden tokira joan eta denak tabletarekin zeuden. Josu korrika etxera joan zen, etxean sartu eta bere aita egunkari elektronikoarekin, bere ama ordenagailuarekin eta bere anaia nintendoarekin zeudela ikusi zuen. Josuk gurasoei zerbait esan eta gurasoei bost axola ere. Josu beldurtu zen eta bere logelara korrika joan zen. Ohean eseri zen, negarrez hasi eta... Josu esnatu egin zenean bere anaia negarrez zegoen eta ama jateko ordua zela esanez. Josu korrika joan zen bere amari eta aitari besarkada bat ematera. Jan eta gero lagunekin jolastera joan zen oso pozik.



### MIKEL MENDIZALEA • UNAI NAGORE SANJUÁN

**2. SARIA: Lehen Hezkuntza 5.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 5ºF**

Bazen behin Mikel izeneko mendizale amorratua. Mikelek mendi asko igo zituen eta beti bakarrik, baina mendi bat falta zitzaion oso berezia zena berarentzat, mendiaren izena Everest zen. Egundak txango bat egitea bururatu zitzaion Everestera igotzeko eta bere hiru lagunak berarekin joateko esan zituen. Bera pentsakor gelditu zen eta baietz esan zuen. Mikel eta bere lagunak bidaia prestatzen gelditu ziren. Hurrengo goizean motxilak sorbaldan jarri eta lasai lasai mendia igotzen hasi zirenean, ekaitz bat hasi zen, lagun bat erori zen eta:  
-Mikel lagundu!!! Esan zion.  
Mikel lehenengoa zegoen eta mendiaren tontorrera igo nahi zuen baina ekaitza gero eta handiagoa zen, haize gehiago, elur gehiago, hotz gehiago. Mikel ere bai erori zen, bere lagunak bezala, eta ekaitza askoz handiagoa zen. Esnatu zenean bakarrik zegoen eta jakin gabe nora joaten zen igotzen. Igotzen ari zela, bat-batean zerbait altua mugitzen zela ikusi zuen eta segitu zuen igotzen eta berriro ikusi zuen

zerbait mugitzen. Azkenean kobazulo baten atarira ailegatu zen eta kobazulora sartu eta izaki handiz, altuak, begi urdinak, ile zuria eta elurrez beterik zegoen. Mikel kobazuloan korrika hasi eta harri baten atzean ezkutatu zen. Munstroak Mikeli esan zion:  
-Ez dizut ezer egingo, hemengo mendiaren zain-tzailea naiz eta zure lagunak non dauden badakit, nik aldi bat bakarrik lagundu ahal zaitut.  
-Zer nahi duzu tontorrera igo ala lagunak salbatu?  
-Tontorrera igo nahi dut!  
-Ongi pentsatu, erortzen bazara, nork lagunduko dizu? Oso pentsakor gelditu zen eta:  
-Lagunak salbatu nahi ditut!!!  
-ONGI BA! Lagunduko zaitut!!! Mikel eta munstroa elurretik eta bide arraro batzuetatik joan ziren eta lagunak aurkitu zituzten. Hauek oso pozik jarri ziren, Mikel tontorrera igo beharrean, lagunak salbatzera joan zelako.  
Munstroak lagun bati esan zion, "nahi duzuen", eta tontorrera igotzea aukeratu zuten Mikeli ilusioa ematen ziolako.



## ISTORIO AHAZTEZINA • Nahia AZPIAZU MORENO

### 1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.E • 1º PREMIO: Educación Primaria 6ºE

Kaixo, nik Izan dut izena eta 14 urteko mutil bat naiz. Nire bizitzan gertatutako gauzarik harrigarriena 2014an, 12 urte nituenean, izan zela uste dut. Jakin nahiko duzue, ezta? Ba, orain kontatuko dizuet. 2014ko ekainaren 24an nire begi eta belarriekin hilketa misteriotso baten lekukoa izan nintzen. Atzo izango balitz bezala oroitzen dut, egunero tiroak eta haien arteko elkarrizketak burura etortzen zaizkit eta. Egun hartan goizeko zortzietan esnatu nintzen, astelehena zelako eta eskolara joan behar nuelako. Astelehen hori ez zen besteak bezalakoa, beti, astelehenero, nire amak gosaria prestatzen zidan, baina egun hartan ez zegoen ez gosaririk ez ezer. Isilune ikaragarria zegoen, ez zen ezer entzuten eta beldur pixka bat neukan. Sukaldera jaitsi eta nota bat aurkitu nuen mahai gainean:

“Kaixo Izan: Ama naiz, sumatuko duzu ez dizudala gosaririk prestatu, lanean nagoelako izan da. Gaur kasu berri bat izan da, bahiketa batekoa eta erruduna hortik aske dago. Lasai egon, ez dela ezer gertatuko. Muxu! Adele”

Nire amak, Adele du izena. Polizia da eta berak eramaten ditu bahiketak eta hilketak. Nota poltsikoan sartu, motxila hartu eta eskolara abiatu nintzen. Etxetik atera eta Josu, nire lagun hobere-narekin, topatu nintzen. Ez zegoen beti bezain alai, zerbait gertatzen zitzaion.

- Iepa Josu. Zelan? Ondo babil? -Galdetu nion.
- Bai...- Erantzun zidan gogorik gabe.

Nik ez nion sinesten, zerbait gertatzen zitzaioela bane-  
nekien, betidanik ezagutzen dudalako. Berriz ere

galdetu nion baina ez zitzaioela ezer gertatzen esan zidan. Isil-isilik egon ginen eta klasera igo ginen. Jolas-ordu garaia iritsi zen, baina ni, gelan geratu nintzen Josuren gauzak miatzen. Jakin nahi nuen zer gertatzen zitzaion, eta bat-batean, nota baten zati bat aurkitu nuen, hau jartzen zuen:

“Norbaiti esaten badiozu, hil egingo zaitut”

Klase oso buruari bueltak eta bueltak ematen egon nintzen, pentsatzen nork idatzi ote zion nota hori eta nork nahiko zuen Josu hil. Arratsaldea iritsi zen eta Josurekin etxera itzultzen ari ginela, konturatu zen, mate txostena eskolan ahaztu zuela. Lagun ona nintzenez berarekin joan nintzen. Nik pixagura handia nuen eta eskolan komunera sartu nintzen. Bitartean, Josu klasera igo zen. Bat-batean oi-hu batzuk entzun nituen eta jarraian tiro bat. Korrika igo nintzen eta bat-batean odol txorrota bat klaseko atetik irtetzen zen. Momentu hartan negarrez hasi nintzen. Atea zabaldu eta Josu odol putzu batean eta bularrean tiro batekin ikusi nuen lurrean. Oraindik mugitzen zen, hurbildu nintzen eta esan zidan:

- Izan, maite zaitut!

Eta bat-batean pulstua gelditu zitzaion, ez nuen sinesten, amets bat zela uste nuen. Ez nekien zer egin! Orduan poliziari deitu nion eta momentu bat beranduago poltsa batean Josuren gorputza sartu eta haiekin eraman zuten.

Hori izan zen nire egunik txarrena, lehen esan du-dan bezala, haien arteko tiroak burura etortzen zaiz-  
kit eta. Orain, handitan, polizia izan nahi dut per-  
tsona maltzur eta krudel horiek kartzelan sartzeko.

\*\*\*\*\*

## GUDATIK IHESEAN • Beñat ASTIZ ISASI

### 2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.E • 2º PREMIO: Educación Primaria 6ºE

Nik Mohamed dut izena, 2006an jaio nintzen ez da-  
kit ze hilabete ezta eguna ere. Siriakoa naiz, gudan  
dagoen herrialdekoa. Orain ez nago Sirian. Leku as-  
koz lasaiago batean nago. Ez dut familiarik, nahiz  
eta orain familia batekin bizi. Ez da benetakoa baina  
berdin maite ditut. Nire bizitza aldatu zuen bidaia  
kontatuko dizuet:

Egun hartan dena hasi zen. Bi urte nituen eta oi-huak  
entzuten hasi nintzen. Egun hartatik aurrera ez ni-

tuen gurasoak gehiago ikusi. Lau urte pasatu ziren  
egun zorigaizto hartatik. Geroztik osabarekin bizi  
izan nintzen.

Egun batean osabak esan zidan asko maite nindue-  
la baina niretzat bizitza on bat nahi zuela. European  
lagun bat zuela esan zidan eta berarekin eraman-  
go ninduela. Portuan jende asko zegoen, kostata  
baina osabaren laguna aurkitu genuen. Besarkada  
handi-handi bat eman nion nire osabari. Itsason-



## XXVII. Literatura Lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

tzira sartu eta abiatu ginenean jende pila zegoen itsasontzi txiki hartan. Lotsaturik nengoen, ez nuen inor ezagutzen. Egunak pasatu ziren. Ni goseak nengoen. Bat-batean urrutian itsasontzi bat ikusten zen. Hurbilgotik ikustean konturatu nintzen itsasoko guardiak zirela, itsasontziak atzera itzultzeko esanez (gurea ez zuten ikusi) baina aurrera jarraitu genuen. Jendea hiltzen hasi zen, ni beldurtuta nengoen. Azkenean lurrera heldu ginen. Bidaia oraindik ez zen bukatu. Gero oinez ibili behar ginen. Bat-batean hesi luze bat ikusi genuen. Guztiz nekaturta nengoen. Kanpin dendak zeuden, batean sartu eta lo egin genuen. Oihu batzuk esnatu ninduten. Pertsona batzuk hesia pasatu nahian zeuden baina guardiek ez zieten uzten. Atera nintzen eta kamara zeraman emakume batek keinuak egin zizkidan

eskuinera joateko adierazten. Bat-batean guraize handi batzuekin apurtu zuen hesia. Siriako hizkera bazekien eta pasatzeko esan zidan eta poltsa handi batean sartzeko. Nik leku txarrago batera ezin nintzela joan pentsatu nuen eta poltsan sartu nintzen. Mugitzen hasi ginen baina bat-batean gelditu ginen. Motor moduko bat hasi nintzen entzuten. Azkenean poltsatik atera ninduten. Etxe batean nengoen. Ez zirudien bonbarik botako zituztenik, han dena bakea zen. Geroago Grezian nengoela azaldu zidaten, Atenas deitutako hiri batean.

Hortik aurrera pozik bizi naiz. Orain lagunak ditut eta familia bat. Liburu hau idatzi dut jendeak nola bizi garen jakiteko. Sirian dagoen problema ulertu dut: “bonbak botatzeagatik, jarri dizkigute hesiak”.

\*\*\*\*\*

### EUSTAKIO ETA ERMENEGILDA MANHATANEN • ASIER GOIKOETXEA LIZUR

#### 1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.F • 1º PREMIO: Educación Primaria 6ºF

Gezi izeneko herri batean, zaharren artean, Gaizka izeneko baserri bat bizi zen, animaliak maite zituen. Gaizkak Dindirri mendian zeukan baserria eta egunero goizeko zazpitan esnatzen zen hara joateko. Baserri hartan txerriak, behiak eta animalia gehiago zeuzkan. Baina bere animalia politenak eta gustukoenak Eustakio behia eta Ermenegilda txerria ziren.

Duela hiru egun, Gaizkari, Manhattanetik etorritako eskutitz bat iritsi zitzaion. Gaizka urduri zegoela, eskutitza ireki eta hauxe bera zioen:

“Kaitso:

Omi got, biutiful baserri Gaizka. Zuri galdetu nahi genuen aber you come to Manhattan zure animalia politenak hemengo umeek nolakoak diren see (ikus) egiteko. Mesedez come to Manhattan.”

Gaizkaren baserria zaharra zen, itoginak eta hainbat arazo gehiago ere bazituen. Dirua beharko zuela pentsatu eta gero 2126345768 telefonora deituta parte hartuko zuela esan zion lehiaketako ordezkariari. Gaizka gaixoak, ez zekien aireportuek nola funtzionatzen zuten eta horren ondorioz billetearengatik 200€ ordainduz gero, iritsi zen Manhattanera. Behin Manhattanen, eskutitzan jartzen zuen helbidera joan zen. Eskutitz horrek, azkenean, Manhattaneko Zentral Park famaturaino eraman zuen. Gure baserriarrari urduritasuna sartu zitzaion eta

jateko gogoia ere bai. Marmitakoa jango zuen baina hiri xeble hartan ez zegoen halakorik. Azkenean hamburgesa izeneko janari koipetsu eta gauza arraroz betetako haragiarekin moldatu behar izan zen. Hori hartzeko, lotuta utzi behar izan zituen animaliak, baina Gaizkak ez zuen hau maiz egiten, aske ibiltzen baitziren beti larreetan. Horren ondorioz, korapiloa gaizki egin zuen eta abereak hortik alde egin zuten erraz asko. Eustakio eta Ermenegilda txerria Manhattanetik zehar zenbiltzan eta hiri hartatik zenbiltzala trastakeria pila bat egin zituzten: Jendea adarkatu, denden atean pixa eta kaka egin, baita atari bat hautsi ere. Manhattaneko jende berezi horiek nazkatuta zeuden eta txakurtegira deitu zuten. Txakurtegikoak harri eta zur gelditu ziren entzundakoarekin. Izuarekin bere arma eta tranpa guztiak hartuta animalien bila Manhattan barne ibili ziren. Azkenean, kale zahar eta zikin batean, herdoildutako zakarontzi usaintsu baten barrutik, jendearen zaborra jaten aurkitu zituzten. Hamar minutu luze borrokatzen eman ondoren eta adarkada baita hozkada jaso ondoren, txakurtegiko langileek animalia handi eta arraro horiek furgonetan sarzea lortu zuten. Behin txakurtegia Eustakio eta Ermenegilda burdinazko kaiola handi baten barruan bukatu zuten. Gure Gaizka goseti hamburgesa jatek itzuli zenean bere animalia kuttunak ez zeudela



ikustean oka egiteko gogo sartu eta errendatuta bukatu zuen sasi batzuen atzean. Ahalegin guztiak egin ondoren bere animaliak bilatzen, pisu bateko atea mila zatitxotan egina ikusi eta gero, igogailutik atera zen emakume bati galdezka hasi zitzaion. Honak bi animalia iletsuk eta handiek hautsi zutela eta txakurtegira eraman zituztela esan zion. Gaizka, bada ez bada ere, txakurtegira joan zen ea bere animaliak ote ziren ziurtatzera. Zoritxarrez bereak ziren eta berreskuratzeko nahian jabeari ea eraman ahal zituen galdetu zion. Baietza jaso bezain pronto 100\$ ordaindu behar zituela jakin zuen. Diru gehiegi zen...ez zuen hainbeste. Bueltak eta bueltak emanez ideia bat bururatu zitzaion dirua lortzeko. Zentral Parken marmitako pintxoak salduko zituen dolar baten truke. Esan eta egin, Gaizkari zerbaite buruan sartzen zaionean...

Denbora gutxian 150 pintxo saldu zituen eta lortu-takoa ikusterakoan bere animaliak askatzera joan zen. Txakurtegiko nagusia iritzi aldatu eta abereak berarentzako gordetzea erabaki zuen. Gaizkak pazientzia galdurik ukabilkada bat eman eta bere animaliak itzultzera behartu zion. Txapelketarako denbora gutxi gelditzen zen. Ermenegilda besoetan hartu, Eustakioren gainera igo eta tita batean behiaren indarra erakutsiz Zentral Parken zeunden. Ordezkariei gertatutakoa kontatu eta gero, hauek sarria eman zioten animaliangan erakutsi zuen maitasunarengatik. Denbora gehiago galdu gabe hegazkina hartu eta Euskal Herrira itzuli ziren hirurak. Diru-sariarekin baserria konpondu eta ederki bizi izan ziren Dindirri mendian betirako.

\*\*\*\*\*

## TXIMELETAREN ABENTURA • Nahiya AGUDO LIZARRAGA

### 2. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.F • 2º PREMIO: Educación Primaria 6ºF

Bazen behin basoan bizi zen tximeleta bat. Koloretxo zuen izena. Berezitasun bat zuen: uretan egoten bazen ez zitzaion ezer gertatzen bere hegoei. Basoan mota guztietako lagunak egin zituen: urtxintxa, basakatuak, azeriak, untxiak...Baina ezagutzen ez zituen bakarrak, itsasoan bizi ziren animaliak ziren. Marrazoak batez ere interes handia pizten zioten. Gau neketsu batean, hosto baten gainean zegoela, hurrengo eguneko bidaian pentsatzen hasi zen:

-Badakit zer egingo dudan. Itsasotik buelta batzuka emango ditut, ea zortea dudan eta lagun berriak egiten ditudan.

Baina Koloretxok arazo bat zuen. Ez zekien nola joan itsasora. Bera oso triste zegoen. Itsasoko animaliekin harremanetan jartzeko gogoak kendu zitzaizkion, oso zaila baitzen bera bakarrik itsasora joatea. Baita hegan egiteko indarrak joan zitzaizkion. Arratsaldean neska koadrila gazte bat pasatu zen Koloretxoren ondotik. Beraien atzetik joatea erabaki zuen laguntza eskatzeko asmoz. Gazte koadrila hura konturatu zen Koloretxo beraien atzetik zebilela laguntza eskatzeko nahian. Oso triste zegoela konturatu ziren. Baina gaur egungo gazte askok egiten duten bezala paso egin zuten. Hurrengo goizean gazte koadrila esnatu eta ateraldi

bat egitea erabaki zuten. Baina begira non, Koloretxo berriz agertu zen uraren gainean zegoela. Berriz ere gure tximeleta triste zegoela konturatu ziren. Baina... Bai, oraingoan galdetzea erabaki zuten. Baina nola galdetu? Tximeletak ez zekien gizakiok bezala hitz egiten. Berarekin ezin zuten hitz egin, beraien pelikula egitea erabaki zuten. Pentsatu zuten uretan zegoenez, itsaso batera ailegatu nahi zuela.

-Ba hori bada, lasai, berarekin itsasora joango gara. Hori entzutean tximeleta pozez zorutzen jarri zen eta orduan bai hegan egin zuela. Beraz, hurrengo goizean goiz altxatu eta Koloretxorekin itsasorantz abiatu ziren. Oso bidaia luzea zenez, etenaldi labur bat egitea erabaki zuten neskek. Koloretxok lehenbailehen nahi zuen itsasora ailegatu, beraz, ez zitzaion etenaldi hori asko gustatu. 5 minutu pasa eta gero bideari aurre egitea erabaki zuten. Bidaia dena baino aspergarriago ez izateko ikusi-makusi kantatzea erabaki zuten.

-Ikusi-makusi...





## XXVII. Literatura Lehiaketa haur eta gazteentzat euskaraz

-Zer ikusi...

-Gauza bat asten dena...

Eta konturatzerako ia itsasora ailegatu ziren. Tximeleta pozez zorutzen zegoen. Neskek pena zuten beraien Koloretxo itsasoan bakarrik uztearekin, ze nahiz eta berarekin oso denbora gutxi pasa, denbora gutxi horretan asko ezagutu zuten elkar eta hitz egin gabe ulertzen ziren.

-Asko zaindu eta ez zaitetz animalia handiei asko hurbildu!!!

-Asko zaindu.

-Asko gustatu zait zu ezagutu izana.

Eta gure Koloretxo koloretako loretxoz egindako bainu jantzia jarrita, uretara abiatu zen. Han itsasoan bizi ziren lagun pila egin zituen eta neska koadrila gazteari bisitatzerako joaten da noiz behinka.



### AITOR • RAÚL BAQUEJANO SOLCHAGA

#### 1. SARIA: DBH - 1.A • 1º PREMIO: ESO - 1ª

1936. urtean Aitor izeneko mutiko batek, Iruñean bizi zena, bere 13. urtebetetzea ospatu zuen. Bere urtebetetzeerako tarta bat erosi zuten, 5 pezeta eman eta jolastera! Gainera, zorte ona zeukan, lagunei bi pezeta eta pozik!

Urteak joan, urteak etorri, gerra bukatzen zenez denak oso triste zeuden. Ezin zen ikastolara joan arriskutsua zelako, urtebetetzeak lehen baino okerragoak, San Ferminak ospatzen zirenean dena militarrez beterik eta ezin zen ezer egin. Frankismoa hasi zen indarra hartzen eta ezin zen ezer egin. Dena okertzen hasi zen.

Baina egun batean ohetik altxatu zen beti bezala, irratia piztu, beti bezala, baina irratia esan zuen: ¡Errepublikarrek galdu dute! ¡Frankok irabazi du!

Gerrari buruz ez zuen ezer ulertzen, asko poztu zen gerra bukatu zelako eta kalera aterako jolastera bere lagunekin.

Baina oraindik Frankistek, errepublikarrak San Kristobal fuerlean giltzaperatu zituzten eta berak ez zekien, baina bera errepublikarra zen. Soldadu batzuk ikusi zuten eta ikusi bezain laster San Kristobalera eraman zuten, besteekin eraman zuten.

Familia oso kezkatuta zegoen baina ezin ziren atera, bestela, beraiek Aitorren zorte berdina izango zuten eta.

Eta horrela, aurkitzen zituen intsektuez bizitzen zen. Bere lagunak hiltzen ziren, bakarrik geratu zen eta denbora poliki-poliki pasatzen zen.

Baina egun batean hots batzuk entzun ziren, esanez:

-Hor ikusi, pertsona bat dago! -Esan zuen batek.

-Bai! Anbulantzia deitu! - Beste batek.

-Orain! Mmm...!Hemen! ehun... eta hamabi...

- esan zuen hirugarrenak.

Egun batzuk geroago ospitaletik aterako zen. Bere etxera joan zen familia ikusteko baina bakarrik amona bat zegoen.

-Non daude nire gurasoak?- Galdetu zion irrikaz.

-Ez dakit. Nor zara?

-Aitor!

-Zer? Aitor? Semetxo maitia! Non zeunden? Oso kezkatuta geunden! Beno, nengoen...

-Nola nengoen? Eta aita? Eta anaia?

-Biok...Aterako ziren zure bila, Frankistek hartu eta ez zuenez fuertera joan nahi, tiro bat bota zioten zure aitari eta bere azken hitzak izan ziren:“Mesedez Aitor aurkitu, bukatu nik hasi nuen lana”

-Ezzzz!- Esan zuten Aitorrek negarrez.

-Bai mutil, hau da gerrak egiten duena; jendea hil, bere bizitza izateko eskubidea leihotik bota, familiak sufritzeko...Eta azkenean zertarako? Zer irabazten duzu? Zure aitak, bakean deskantsatzen duenak, esan zuten bezala:

“Gerrak deklaratu dutenek, gero soldaduek bezala borrokatu beharko zuten, hola mundua gerraz libre eta jende guztia bere askatasunean biziko zen” - Bai hori egia da.- Esan zuten Aitorrek malkoak lehertzen.

-Eta orain zer egingo dugu? Hemen geratu negar egiten ala zure aitak nahi izango zuten bezala, mundu osoko askatasunaren eta bakearen alde borrokatzerako joango gara? Zeren hori baita me-rezi duen borroka batengatik borrokatzea.

Eta Aitor eta bere ama munduan barna bideratu ziren, bakea defendatzen, bakea eta askatasuna eta horrela, hurrengo urtebetetzea bere bizitzako hobereana izango zen.



## MATXISMOA • AINHOD ACINOS RODRÍGUEZ

### 2. SARIA: DBH - 1.A • 2º PREMIO: ESO - 1ºA

Florentina Gonzalez naiz eta 20 urte ditut. Altsasun bizi naiz. Etxean nire aitarekin bizi naiz. Facundo deitzen da eta oso jatorra da. Nire anaiarekin ere bizi naiz, Francisco, 22 urtekoa. Berarekin asko haserretzen naiz baino asko maite dut. Zoritzarrez ama iaz hil zen. Minbizi oso gogorra zuen.

Etxean nire lagunekin nengoela, gerra hasi zen. Tiro eta bonba asko entzuten genituen eta asko beldurtu ginen. Aita eta anaia ez zeuden etxean. Urduritu nintzen zerbait gertatu ahal zitzaielako. Baina etxeko atea ireki zen, beraiek ziren! Beraien aurpegian kezka nabaritzen nuen.

- Florentina, gerra hasi dela badakizu. Ez urduritu, ez beldurtu baina... Anaia eta biok Sevillara joan behar gara, soldadu. Bakarrik geratuko zara. Ez atera gehienetan kalera. Arratsaldean hegazkina hartuko dugu. Gerra bukatzean etorriko gara. Maite zaitut. Egon lasai. Ongi egongo gara.

Asko tristetu nintzen. Baina ezin nuen ezer esan. Beraiekin joan nahi nuen baina neska nintzenez ezin nuen. Besarkada handi bat eman zidaten eta joan ziren.

Joan zirenetik gaur egun arte oso bakarrik sentitu naiz. Urte honetan ez dut ezer egin. Unibertsitatera ezin izan naiz joan, kalera bakarrik janaria erostera atera ahal nintzen. Oso babestuta eta etxearen ondoan dagoen dendara... Ezin naiz horrela bizi! Badakit neska naizela baina berdin zait, aurkeztuko naiz soldadua izateko.

Lruñean nago, probak egiteko. Itxaron gelan ez zegoen neskarik. Denak mutilak ziren, mutil oso indartsuak. Itxaroten nengoela bertako mutilek aurpegi txarrearekin begiratzen zidaten. Gizon batek iraindu ninduen. Denak barre egiten ari ziren nitaz... Nire buruak aski zela pentsatu zuen eta korrika eginenez joan nintzen.

Hurrengo hilabetean berriz lruñera joan nintzen. Bertako mutilek berdina egin zidaten, baina ez nuen ihes egin. Erakutsi nahi nien ahal nuela, neska bat izanda. Nire txanda zen! Oso urduri nengoan.

Sartzerakoan mutil indartsu bat zegoen. Aurpegi txarrearekin begiratu zidan eta ezer esan edo egiteko aukerarik eman gabe "hurrengo" esan zuen. Nire azalpenak nahi nituen baina bakarrik esan zidan "neska zara".

Hurrengo astean berriz joan nintzen. Mutilak normal zeuden nirekin, ez zidaten burla egin, ezta zirikatatu ere. Nire txandan "jabeak" probak egiten utzi zidan. Probak bukatzerakoan oso ona nintzela esan zidan. Hor pasatu zen hoberena. Badakizue zergatik ez zidaten zirikatzen edo zergatik eman zidaten probak egiteko aukera? Mutilaz mozarrotu nintzelako. Nire familiarekin egongo nintzen!

Sevillako bidean asko pentsatu nuen. Ez nuen uler-tzen zergatik mutilek gauza batzuk egin ahal zituzten eta neskek ez! Ez ote ginen denak berdinak? Denok eskubide berdinak ditugu.

Gerran nire aitarekin eta anaiarekin egon nintzen. Beraiek mozarrotuta nengoela zekiten bakarrak ziren. Gerra bukatu ondoren hildako asko egon ziren. Zorionez, nire familiakoak ez ziren izan. Etxera joaten ari nintzenean, gerraren jabeak gelditu ninduen. Zorionak eman zizkidan oso ona nintzelako. Baita komentatu zidan ere sari banaketa batera joateko. Sari banaketa horretara joan nintzen. Bertan nire saria hartzerakoan hau esan nuen:

- Eskerrik asko. Ez zait ongi iruditzen neskak ezin izatea soldadu. Denek eskubide berberak dauzkagu! Aski da! Neska bat soldatu hoberena izan ahal da, mutil bat baino hobea.

Ez dakizue ez baduzue probatzen uzten! –Esan nuen ileorde eta soldadu jantzia erantziz. –Ni neska bat naiz! Neska bezala aurkeztu nintzenean ez zenidaten probak egiten utzi eta mutilaz mozarrotuta sari bat eman didazue!!!

Hau ipuin bat da, baina, errealitatean askotan gertatzen da. Matxismo ikaragarria dago mundu honetan. Egunez egun gutxitzen ari da. Denak berdinak gara! Eskubide berberekin! Mutilek eta neskek gauza berberak egin ahal izan behar dituzte!



## AMONAREN MEZUAK • MADDI TELLERÍA LEONISIO

### 1. SARIA: DBH - 1.B • 1º PREMIO: ESO - 1ºB

Bazen behin Mikel izeneko mutiko altu, ilehori eta jator bat, amarekin bizi zena eta 8 urte zituen. Bere amonak Maritxu zuen izena, eta beste etxe batean bizi zen; etxe zahar eta handi batean, bera bakarrik. Mikelek eta Maritxuk oso harreman ona zuten: egunero ikusten zuten elkar, amonak ipuinak kontatzen zizkion gauero, beti jolasten eta barrezka zeuden, bazkari goxoak prestatzen zizkion amonak Mikeli, gaixo zegoenean zaindu egiten zuen... Mikelen-tzako beste ama bat bezalakoa zen.

Baina neguko egun euritsu, hotz eta ilun batean, amonak bihotzekoa izan zuen eta zoritxarrez hil egin zen. Mikel ez zen hain triste sentitu inoiz. Oso bakarrik sentitzen zen, eta amona gabe, egunak oso luzeak, tristeak eta ilunak ziren. Handik Aurrera, Mikelek ez zuen berriz hitzik esan.

Bi aste pasa eta gero, amak esan zion Mikeli oso konbentzituta:

- Mikel, amonaren etxea saldu beharko genuke. Orain ez da inor bizi eta oso zaharra eta itsusia dago etxea. Gaur bertan joango gara amonaren gauzak jasotzera.

Mikelek baietz esan zion buruarekin. Eta amonaren etxerako bidea hartu zuten. Iritsi zirenean, amak esan zion:

- Nik sukaldea, egongela eta komuna jasoko ditut. Zuk, amonaren logela jasoko duzu. Ongi da?

Mikel, amak esan zion bezala, amonaren logela jasotzera joan zen. Paretan zegoen apala jasotzen hasi zen eta gero armairua ireki zuen. Arropa guztia atera ondoren gutunontzi bat zegoela ikusi zuen. Gutunontziaren irekigunean, "MIKEL" jartzen zuela konturatu zen. Gutunontzia ireki eta mezu bat zegoela ikusi zuen. Bihotzeko taupadak oso azkar zihozela sentitu zuen mezua irakurtzerakoan.

Ez ahaztu inoiz:

Nik beti maiteko zaitut,  
eta beti maiteko zaitut,  
hilda ego narren  
beti egongo naiz zure ondoan  
maite zaitut laztana.  
Maritxu.

Mikelek ezin zuen sinetsi, amonaren mezu bat zen!!! Gutuna gorde zuen eta gutunontzia hutsik zegoela ziurtatu zuen.

Amonaren etxea jasota zegoenean, Mikelek etxeari

begirada azkarra eman zion, ezer uzten ez zutela jakiteko. Eta armairua irekita utzi zuela gogoratu zuen. Orduan gutunontzia ireki eta ze nolako uestekabea!! Beste gutun bat zegoen!!

-Baina nola liteke...- esan zuen Mikelek harriturik. Eta gutuna gorde zuen.

Mikelek amonaren espiritua hor zegoela eta mezuak idatzi zizkiola pentsatu zuen. Horregatik gauero joaten zen ezkutuan amonaren etxeko armairuan zegoen gutunontzia irekitzera eta gutunak jasotzera. Beti gutunak zeuden eta ez zen hain bakarrik sentitzen, amona beti hor egongo zelako, bera maitatzeko, zaintzeko eta babesteko:

Kaixo Mikel:

Zer moduz eskolan?

Txango batera joango zaretela jakin izan dut.

Ondo pasa.

Maite zaitut laztana,

Maritxu.

Horrela pixkanaka pixkanaka gauero joaten zen amonarekin hitz egitera. Egun batean, oihuka esan zion amari:

-Ezin dugu amonaren etxea saldu, ama!!! Amonaren espiritua hor dago. Amonaren espiritua hor bizi da eta.

-Baina, baina, baina zer esaten duzu? Hori ezi-nezkoa da. Zure imajinazioa izango da, etxea salduko dugu. - Esan zion amak oso ziur.

-Ez ama, ezin dugu!!! Erantzun zion Mikelek su bizian.

-Mikel, aski da, etxea salduko dugu eta kito.

-Ama, sinesten ez banauzu, etorri.

Mikel eta ama amonaren etxera joan ziren. Mikelek armairua ireki zuen eta amak esan zuen:

-Mikel hemen ez dago ezer. Nik esaten nuen bezala.

-Baina hemen zegoen gutunontzia, egunero etortzen naiz... Ama benetan, hemen gutunontzi bat zegoen eta barruan amonak idatzitako gutunak.

-Aski da Mikel.

Ama haserre joan zen sukaldera eta Mikel oso triste jarri zen amak ez zuelako sinesten.

Biak ateratzeko prest zeudenean argi guztiak itzali zituzten. Baina bat-batean, lorategian zeuden lore hilak hazten hasi ziren eta hogei segundotan lorategia lorez bete zegoen. Amari Maritxu etorri zitzaion



burura, txikia zenean arratsaldero berarekin joaten zelako loreak ureztatzen.

Orduan usain goxo bat iritsi zen sukaldetik, amari gehien gustatzen zitzaizkion gaileten usaina zen. Ama sukaldera joan zen korrika eta labean, bere amak egiten zizkion gailetak zeuden. Ama Marixuren espiritua hor zegoela pentsatzen hasi zen.

Orduan izkin batean zegoen logela baten argia piztu egin zen. Bera txikia zenean zeukan logela. Barrura sartu zenean, bera zeukan bezala zegoen dena: jostailuz beteta, pareta arrosa kolorekoa, bere familiaren argazkiak...

Marixuren espiritua benetan zegoela sinetsi zuen eta semeari barkamena eskatu zion.

Ama armairura joan zen gutunontzia hor zegoen begiratzeko eta oraingoan ikusi zuen. Etxea ez saltzea erabaki zuen eta amonaren etxera bizitzera etorri ziren eta bere etxea saldu egin zuten.

Hortik aurrera ez zuten amonaren falta sentitu, bazekitelako hil egon arren beti beraiekin egongo zela beraiek maitatzeko eta hori ez da inoiz ahaztu behar.

\*\*\*\*\*

## OROIMENA • SAIOA CONTRERAS MERCERO

### 2. SARIA: DBH - 1.B • 2º PREMIO: ESO - 1ºB

Bazen behin Gernikan bizi zen Aitor izeneko mutil gazte bat, 15 urtekoa. 1936. urtea zen, uda zen eta Aitor bere lagunekin, Itziar eta Enekorekin, elkar-tzen zen arratsaldero. Etxean egoten zenean, bere aitona-ekin egoten zen, aitona zaintzen. Bere gurasoak lanagatik Afrikan zeuden duela 2 urte. Gerra zen eta gurasoek mezuak bidaltzen zizkioten Aitorri, ongi zeudela esanez, baina hamarretik bakar-ra heltzen zen.

1937. urtean Gernika bonbardatzen hasi zen Espainia, Alemaniaren laguntzaz. Aitor eta bere aitona bere etxean zeuden, bonbak entzuten hasi zirenean. Aitor bere aitona-ri etxeko sotora jaisten lagundu zion. Aitor berriz igo zen eta makurtuta, leihotik begiratu zuen. Inoiz ikusi zuen gauza itsusienak ikusi zituen, hainbat gorpu hilda, bere aurrean. Eta multzo horretan bere laguna, Eneko, hilda.

Aitorren bihotzeko taupadak momentu batean gelditu ziren. Segundo batean hiltzeko gogoak sartu zitzaizkion baina momentu horretan eztanda bat entzun zuen eta bere bihotzeko taupadak azkartu ziren eta sotora jaitsi zen bere aitona-ekin.

-Aitona! Aitona! Eneko hil da! Hil da! -Garrasi egin zuen negarra eutsi ezinik.

Bere aitona besarkatuz lasaitu zen. Egun osoa eman zuten sotoan, beraz, Aitor dena isilpean zegoenean igo zen. Atea ireki zuen, bi pauso eman zituen eta bere begitik erortzen zen malkoa lehortuz, gehiago

ezinik Enekoren gorputza gehiago ez zuen begiratu eta serio jarri zen. Ez zekien non eta nola zegoen Itziar, gehienak hilda edo beste lekura joan ziren ihes egiteko.

Aitor, Itziarren etxera abiatu zen. Itziarren etxeko atea itxita zegoen, beraz, oiuhu batez deitu zion. 3 minutu eman zituen itxoiten eta azkenik Itziarrek atea ireki zuen.

-Ongi zaudete? - Galdetu zuen Aitorrek.

-Ez, nire ama oso gaizki dago, merkatuan zegoen eta hanketan zauritu dute. Nire aita trapu batekin odola ez ateratzeko presioa egiten ari da baina egun osoa daramagu eta odol asko galdu du. Lagundu mesedez. -Esan zuen negarrez.

-Itxo! badituz bendak etxean! -Oihukatu zuen bere etxera joateko korrika hasi zenean.

Aitorrek bendak hartu eta korrika Itziarren etxera bueltatu zen. Iristean, Itziarren negar zotinka entzun zuenean, bere ama hil zela ikusi zuen. Aitor, oso haserre eta triste, oinkadak emanez etxetik atera zen eta oihukatzen hasi zen.

-Lortu duzue nahi zenutena? Hil duzue jende nahikoa, bai? Bakarrik herri txiki batengatik! Sasikumeak! - Oihukatu zuen zerurantz begira.

Momentu horretan Aitor esnatu zen. 2016ko apirilaren 26a zen. 93 urte zituen. Ondoan zeukan mahai txiki batean zegoen Enekoren argazki bat begiratu, berriz lokartu zen oroimen horrekin.



## IMAGINARIOA BAINA BENETAKOA • Zuhara Zaratiesi López

1. SARIA: DBH - 2.A • 1º PREMIO: ESO - 2ºA

Bazen behin Haitza izeneko neskatxo bat, Irurtzunen bizi zena. DBH 1. mailakoa zen, 12 urtekoa. Asko gustatzen zitzaion margotzea eta denbora libre apur bat zuenean, beti margotzen zegoen. Ez zihono akademia batera, txikitatik etxean ikasi zuen, bakarrik. Bere institutuko ikasgaiak gustukoena plastika zen eta oso ongi pasatzen zuen. Ikasgai guztietan ona zen, asko ikasten zuelako eta ikastea gustatzen zitzaioelako baita. Nota bikainak ateratzen zituen, eta neska oso langile eta jatorra zen. Eskubaloira jokatzeko erabaki zuen ere eta primeran egiten zuen. Plastika zuen egun batean, klasera iritsi eta andereñoak hauxe esan zion:

- Gaurko klasean animalia bat imajinatuko duzue eta marraztu. Badakizue nola egiten den, aurreko klaseetan eman dugu: lehenengo irudia egiten duzue; gero, margoekin margotu eta azkenik, bolu-mena eman irudiari itzalak egiten.

Haitza irudi hori egiteko irrikaz zegoen, pentsatuta zeukan eta. Oso azkar pentsatzen zituen gauzak eta imajinazio asko zeukan. Klaseko bakarra izan zen bukatu zuena eta ondo egiteaz gain azkar egiten zuen. Arrain handi eta arraro bat marraztu zuen; munduko ia kolore guztiak zituen eta barraskilo formako isats bat. Irakasleari entregatu zionean, irakasleak geldidagorri gelditu zen eta Haitzari oso arraroa iruditu zitzaionez, galdetu zion:

-Zer gertatzen da? Hain gaizki dago?

-Ez, ez Haitza! Bikain dago baina... zuk imajinatu duzu? Esan nahi dut... ez duzu inoiz ikusi?

-Ba, egia esan, ez. Zer ba?

-Duela milioika urte, zuk egindako antzeko arrain espezie bat existitzen zen. Badakit zuk ez duzula kopiatu imajinazio handia duzulako eta espezie hori desagertu delako, baina, ez nekien hain antzekoa egingo zenuenik.

-Ez dudala kopiatu badakizu eta ez nuke hori inoiz egingo. Ba al dakizu arrain espezie horren argazkirik dagoen Interneten?

-Ez dakit baina oraintxe bertan bilatuko dut.

Arrain espezie horren izena jarri zuen eta atera ziren bost emaitzetatik bat aukeratu zuen. Hor jartzen zuena oso interesgarria zen eta irakurtzen jarraitu zenez web horretan sakatu zuen. Irakurri gero:

-Ezin dut sinetsi! Mundo osoan bat gelditzen da eta Mediterraneoko itsasoan dago! Mila esker

benetan, bihar larunbat goizean han egongo naiz, arraina bilatzen. Aurkitzen badut astelehenean ekarriko dut. – esan zion emozio handiarekin Haitzak.

Larunbata iritsi zen eta goizeko 9etan kotxean zegoen, Mediterraneorako bidaian. Itsasora ailegatu eta aho zabalik geratu zen, oso polita zen. Azkar motxila hartu eta dena prestatzen hasi zen: igeri egiteko bainujantzia, betaurrekoak eta oxigenoa. Uretara bota eta igeri egiten hasi zen, arrainak eta olagarroak saihesten. Ur azpian arrainak besterik ez zeuden. Haitza eta arrainak. Minutuak eta minutuak pasa, baina ez zen agertzen. Ordu bat pasa ondoren atseden hartu zuen, neka-neka eginda zegoelako. Bokata bat jan eta segidan uretara berriro. Uretara bota baino lehen, geldirik geratu zen pentsatzen eta burura etorri zitzaion gauza bat: Interneten agertzen ziren arrainaren hiru argazkiak harkaitzen ondoan ziren. Azkar-azkar igeri egiten harkaitzen ondora joan eta bilatzen hasi zen. Hurbiltzen joaten zen pixkanaka-pixkanaka, eta bat-batean zer bait koloretsua ikusi zuen. Hurbildu zen baina landare bat zen.

Iluntzen ari zenean, hondartzako ertzean, barraskilo formako isats bat ikustean, tximista bat bezala ateratu zen uretatik. Arraina hondarrean zegoen, bakar-bakarrik. Eskerrak iluntasuna zegoela, bestela ez zuen aurkituko. Oso distiratsua zen, koloretsua eta polita.

Bere gurasoengana joan zen eta arraina ez hiltzeko, motxilan ekarri zuen arrainontzian sartu zuen. Autoan igo ziren eta etxerako bidea hartu zuten. Iristean, egongelako apalean jarri zuen. Hain polita geratzen zen...

Astelehenean plastika zuenez, institutura eraman zuen. Irakaslea aho zabalik geratu zen, ikaskideak bezalaxe. Denok harrিতa geratu ziren ez zutelako horrelako arrainik inoiz ikusi. Irakasleak hau galdetu zion:

-Eta, zer egingo duzu arrainarekin?

-Ba, egia esanda, itsasora bueltatuko dut.

-Benetan? Hainbeste lan bilatzen eta botako duzu?

-Zer egingo dut bestela?

-Pentsa esazu Haitza. Geratzen den bakarra da, eta zuk duzu. Eraman etxera eta gelditzen zaion bizitza, zurekin bizitzea, ongi biziko dela.

-Zuk uste?



- Zuk aurkitu duzu, zuk erabakiko duzu.
- Egia da, asko kostatu zait eta ez dut orain botako bakarra bada. Nire maskota izango da. Eskerrik asko andereño.
- Ez horregatik Haitza. Eta egin duzun lanagatik 10 bat jarriko dizut lan eta ebaluaketa honetan.

Etxera itzuli zenean, gurasoei dena kontatu zien eta oso ongi iruditu zitzaion. Haitzak ez zuen inoiz pentsatu, berak asmatutako zerbait benetakoa izango zenik. Handik aurrera, Haitza arrainarekin bizi izan zen eta arraina Haitzarekin. Biak poz-pozik.

\*\*\*\*\*

## HAMED GAMELUA • MIKEL ISO MUGURUZO

2. SARIA: DBH - 2.A • 2º PREMIO: ESO - 2ª

Bazen behin Saharako basamortuan bizi zen game-lu bat, Hamed izenekoa. Bere taldeko txikiena eta mantsoena zen eta zaldi baten gorputza izatea nahi zuela esaten zuen beti.

-Zure gorputza baloratzen ikasi behar duzu. —esaten zuen bere aitona— bestela jainkoak zigortuko zaitu. Baina nahiz eta hori esan, gameluak bere gorputza aldatu nahi zuen. “Zaldiak hain perfektuak dira; azkarrak, politak, indartsuak...” pentsatzen zuen. “Ez da justua! Nire gorputza lodiagoa eta mantsoa-go da, gainera konkorrak hauek ez dute ezertarako balio!”

Egun batean ideia bat izan zuen. Jainkoen mendira joango zen eta zaldi bat bezalakoa izatea eskatuko zuen. Esan eta egin, gauean inor konturatu gabe taldea utzi zuen eta bidea hasi zuen. Bi eguneko bidaia egin behar zuen. Gainera, uda zen eta izugarritzko beroa egiten zuen.

Bidaiaren lehenengo egunean, eguzkia atera zenean, Hamed hareazko itsaso batean ibiltzen ari zen, duna handiak igo behar izan zituen eta sumendi baten barruan zegoela zirudien beroarengatik. Baina bere konkorrak ura gordetzen zuten ez zen deshidratatu. Kobazulo bat aurkitu zuen eta han egin zuen lo.

Bigarren egunean, Hamed altxatu zen eta kobazulotik atera zen bidaia jarraitzeko. Hareazko basamortua atzean utziz, harrizko basamortu batean sartu zen eta harri txikiz eta handiz osaturiko eremu batean ibili behar izan zuen. Leku horretako harriak oso zorrotzak ziren eta animalia askok zauriak egiten zituzten handik pasatzean. Baina bere azala oso gogorra zenez, ez zuen minik hartu.

Asko ibili zen eta azkenik mendi bat ikusi zuen: Jainkoen Mendia. Oso mendi altua zen eta Hamedek mendira igotzea ez zuela lortuko uste zuen. Baina oso ausarta zen eta igotzen hasi zen. Bere hankak ez ziren abiadura handikoak, baina bai bide malkartsuak igotzekoak. Ia gaua zen baina Hamedek igotzen jarraitu zuen oso nekatuta egon arren. Azkenik tontorrera heldu zen eta lehenengo izarrrak agertu ziren gaueko zeruan. Ez zegoen inor eta Hamedek jainkoak non zeuden galdetzen zuen. Bat-batean, izar batzuk mugitzen hasi ziren eta mendi tontorrera jaitsi ziren, gameluaren ondora.

-Gabon! Gu jainkoak gara. Zertara etorri zara?

-Kaixo! Ni Hamed naiz eta gauza bat eskatzera etorri naiz.

-Zertan lagundu zaitzaket?

-Nire gorputza gorroto dut eta zaldi baten gorputza nahi dut.

Jainkoek barre egin zuten eta hauxe esan zuten: -Hamed! Ez al zara konturatu zaldi bat bazina ezingo zinatekeela basamortuan bizi? Lehenengo egunean beroaren aurka borrokatu zenuen eta konkorrrei esker eutsi zenuen. Bigarren egunean harri zorrotzen kontra borrokatu zenuen eta zure azalari esker irabazi zenuen. Azkenik, mendia igo duzu zure hanka gogorre! esker. Zaldiek ezin dute hori egin. Horregatik zure gorputza maite behar duzu.

-Egia da, eskerrik asko.!

Eta hau esanez Hamed bere taldekoekin batera agertu zen lo egiten. Handik aurrera, bere burua gehiago maitatu zuen.



### OLATZEN AMETSA • Nerea AIZKORLE MUNDARRIZ

1. SARIA: DBH - 2.B • 1º PREMIO: ESO - 2ºB

Bazen behin elurrezko panpina bat Olatz deitzen zena eta Hego Poloan bizi zena. Olatzek munduari bira eman nahi zion, bere ametsa zelako eta leku berriak ezagutu nahi zituelako. Poloan asko aspertzen zen. Beti jolasten zuen beste animaliekin futbolera, saskibaloira, ezkutaketara, partxisera eta kartetara.

Egun batean maleta egin zuen. Bere lagunekin batera munduari bira ematea erabaki zuelako. Gau hartan ezin zuen lorik egin eta ibilaldi bat egitera joan zen. Ordu bat eta erdi pasatu zuen ibiltzen eta gero ohera bueltatu zen berriro ere. Hurrengo egunean, bederatzietan geratu ziren denak plazan: pinguinoak, itsas lehoiak, itsas txakurrak...

Olatzek oso gutxi lo egin zuenez oso nekatuta zegoen eta aurpegian begien azpian poltsa moduko batzuk zituen makillaje zuria bota zuen aurpegian. Maleta, motxila, dirua eta janaria hartu eta 9:01ean plazan zegoen. Autobusa hartu eta Egiptora abiatu ziren. Egiptora ailegatu eta Egipton bero handia egiten zuenez Olatz urtzen hasi zen. Ospitalera joan ziren eta egun bat pasatu zuten han. Olatz sendatu egin zen eta etxera bueltatzeko esan zion medikuak. Autobusa berriro ere hartu eta denak Hego Polora bueltatu ziren. Hego Poloan, berriro ere, futbolera jolastu zuten etxean mailetak utzi eta gero. Olatz atezain bezala jolasten ari zen eta bat-batean despistatu egin zen eta baloiak sabelean gogor jo zion eta lurrera erori zen. Besoak min handia egiten zion eta etxera negarrez joan zen. Gauean ez zuen mina jasaten eta ospitalera abiatu zen. Ospitalea itxia zegoen eta hamar minutuan irekitzen zuten.

Hamar minutuak itxoin eta ospitalea ez zen irekitzen. Olatzek telefonoa hartu eta ospitalera deitu zuen. Ospitaleko medikua lo geratu zen. Ospitalea ireki eta Olatzi galdetu zion ea zer gertatzen zitzaien.

-Zer gertatzen zaizu? – galdetu zion medikuak.

-Min asko daukat besoan. – erantzun zion Olatzek.

-Beso mugitzen baduzu, min egiten dizu?

-galdetu zion medikuak.

-Bai. – esan zuen Olatzek.

-Eta hemen ukitzen badizut? –galdetu zion medikuak.

-Ai, ai, ai! Bai. – erantzun zion Olatzek.

-Beso apurtuta daukazu! – esan zion medikuak.

Olatz etxera ailegatu zenean ohera joan zen. Hurrengo egunean, Olatzek berria eman zien bere lagunei eta bere lagunek Olatz ondo sentitzeko sorpresa bat prestatu zioten. Sorpresa, izan zen, aste bakoitzean eszena bat antzeztea; janaria, arropa, eguraldia... munduko leku batzuetako kulturak... eta abar, bere ametsa betetzeko. Sorpresako lehen astean Txinako kultura imitatzea lortu zuten. Sushia jan zuten eta kimonoak jantzi zituzten. Bigarren astean, Egipto imitatu zuten eta piramideak sortu zituzten. Hirugarren astean, Afrika imitatu zuten eta azala beltzez margotu ziren. Laugarren astean, Estatu Batuak imitatu zituzten eta dena banderaz bete zuten. Bosgarren astean, Londres imitatu zuten eta Big-Benen argazkiak jarri zituzten. Azkenean, seigarren astean, Ipar Poloa imitatu zuten eta bizitza normalera bueltatu ziren azkenean, oso ongi pasatu zuten azkeneko asteetan eta Olatzek ametsa bete zuen.



## NIRE BIZITZA, NIRE ARAUAK • IRUNE URDANGARAIN LESARRETA

2. SARIA: DBH - 2.B • 2º PREMIO: ESO - 2ºB

RING! RING!

Goizeko 7:15ak dira eta prestatzen hasi behar naiz klaserara joateko. Gosaldu, komunera joan, jantzi, komunera joan, telefonoa hartu, komunera joan, makilatu eta klaserara joaten naiz. Gutxi gora behera bizitza osoa komunean ematen dut polita jartzen. Hau da nire goizeko errutina.

DBH 1.A klaserara sartzen naiz eta beti bezala, mutiak korro batean daude futbolari buruz hitz egiten, atzo Eibarrek jokatu zuen eta gelako guztiak talde horretakoak dira.

-Partida trukatu zagoen!

-Bai! Egia! A ze kakaputz arbitroa!

-Eibarrek irabazi behar zuen, ongi eta garbi jokatu zuen!

Neskak, aldiz, beti bezala telebistari buruz hitz egiten daude. "Gran Hermano", "Mujeres, Hombres y Viceversa"... A ze telebista programa txar eta matxistak.

-Osea pues bai, nolako mutila Ivan.

-Bua! Dago super katxondoa!

-Agh ez! Ivan ez! Hobeto Julen, hori bai katxondoa.

Bai, betiko elkarrizketak klasekoen artean. Nik ez ditut Telecinco-ko telebista programak ikusten, oso matxistak dira baina gelako neskekin nago beti. Niri futbola gustatzen zait, zehazki, erreala, hori bai talde hona. Ez diot inori esan futbola gustukoa dudala, bestela, nire kontra hasiko dira guztiak. Ai ama, a ze nolako sozietatea. Nire ama hemen nirekin egongo balitz, asko lagunduko zidan.

Nire amatxo, aitak hil egin zuen. Genero indarke-riaren beste egoera bat. Orain izeba eta osabarekin bizi naiz, noski, amaren partekoak. Ez dakit ezer aitari buruz eta ez dut ezer jakin nahi. Gaur egungo ia gizon guztiak berdina dira, emakumeei gutxiago direla sentitzen egiten digute.

Gaur, martxoak 8, emakumeen eguna da eta beti

bezala manifestaldia dago eta emakumearen ikurra daukan kamiseta morea jantzita daukat. Klaseko neskek ez dira etorri, oso pijak dira eta rollo hau ez dute gustuko. Nire beheko bizilagunarekin etorri naiz. Oso jatorra da eta gainera, ni bezala, ez dauka amarik.

Bat-batean nire lagunak oihu egiten dit. Munduko mutila politena hemen dago, morez jantzita eta emakume guztien alde. Perfektua da. Berarengana gutxinaka-gutxinaka hurbiltzen ari gara eta lotsa handia daukat. Izena galdetu eta Gorka deitzen dela esan dit.

Urte bat pasa da eta Gorka eta biok elkarrekin gauden. Dena oso ongi joan da orain arte baina azken bi hilabete hauetan gero eta gutxiago dago nirekin, neska gehiagorekin dago eta ez da lehen bezalakoa. Gaur berarekin geratu nahiz eta gauza inportante bat esan behar diot.

- Gorka, entzun. Konturatu naiz gure erlazioa ez dela lehen bezalakoa eta gero eta gutxiago maitatzen didazula, orduan...esan nahi dizudana da... moztan dugula...barkatu.

Pentsatzen nuen bere erreakzioa txarra izango zela baina esan zidana "bale, agur" .. eta joan egin zen. Lehen pentsatzen nuen bezala, gizon guztiak berdina dira. 5 minutu barru Ane izena daukan bizilagunarekin geratu naiz eta dena kontatuko diot.

Kontatu diodanean, berari berdina gertatu zitziola esan dit eta bera orain "bisexuala" dela ere esan dit. Orduak pasa direnean, etxera joan naiz eta dena pentsatzen hasi naiz. Agian bisexuala izatea ez da hain txarra, ez du inportante. Orduan, gustatzen zaidan edo ez probatzeko, Anerekin geratu naiz eta musu bero eta luze bat eman diot. Gustatu zait. Ane orain nire bikotea da eta ez zaizkit inoren komentarioak edo hitzak inportatzen. Nire bizitza da eta nahi dudana egingo dut berarekin.



## BERTSO PAPERAK MODALITATEA • MODALIDAD BERTSOS ESCRITOS

FESTA • Nungmin zurlano saenz

**1. SARIA: Lehen Hezkuntza 3.F**

**1º PREMIO: Educación Primaria 3ºF**

(Doinua: Mila kilo zorion)

Gaur festa dugu bai  
nire lagunekin,  
festara joango naiz  
nire amarekin.

Eta festa honetan  
jende asko dago  
baina ez du inporta  
oso pozik nago.

\*\*\*\*\*

BERDINTASUNA • Beñat Astiz Isasi

**1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.E**

**1º PREMIO: Educación Primaria 6ºE**

(Doinua: Mila kilo zorion)

Berdintasuna lortzeko nahia  
daramatzagu urteak  
bortxaketa da errepikatzen,  
errepikatzen kolpeak.  
Noizbait gelditu behar dugu hau,  
dauden beldurrak ahazteak,  
betirako izango ditugu  
gu guztiontzat kaleak.

Beti indartsuagoak izan  
behar dugula gizonak,  
neskak arrosa eraman behar  
eta betidanik gonak  
ta mutilak beti futbolean  
izan behar gara onak,  
ez gara izango zuen panpinak  
gu gara denok pertsonak.

NIRE HERRI POLITA • Hegoi Bueno Orradre

**1. SARIA: Lehen Hezkuntza 4.F**

**1º PREMIO: Educación Primaria 4ºF**

(Doinua: Nire sentimenduak)

Nire herri polita  
dago Aezkoan  
hortxe ditut lagunak  
beti jolasean.

beti ongi aritzen  
gu gara musean  
Garaioa onena  
niretzat benetan.

\*\*\*\*\*

EUSKAL HERRIA • Izaldit Biurrun Mendia

**1. SARIA: Lehen Hezkuntza 6.F**

**1º PREMIO: Educación Primaria 6ºF**

(Doinua: Dama gazte xarmant bat)

Gure Euskal Herri maite  
zaindu behar dugu  
euskaraz mintzatzea  
dela gure helburu  
gaztelerak euskara  
kendu nahi badigu  
gu, guztion gainetik  
pasa beharko dugu.

Duela milaka urte  
daukagu euskara  
ez denez hitz egiten  
egiten du behera  
euskaldun guztiak  
atera kalera  
baina euskara ez galtzeko  
guztiok batera.



SASKIBALOIA • AINHUA ACÍNDAS RODRÍGUEZ

**1. SARIA: DBH - 1.A**

**1º PREMIO: ESO - 1ºA**

(Doinua: Mila kilo zorion)

Saskibalo kirola  
oso polita da  
nik asko jolasten dut  
kirol honetara.

Ni pistan nagoela  
beti ahaztuta  
kanastak sartzen ditut  
baloia hartuta.

Nire lagun Naroak  
baita jolasten du  
entrenatzaile ona  
entrenatzen digu.

Saskibaloian beti  
ibiltzen naiz bapo  
lagunak taldean nik  
daukat lagun asko.

Gure taldean beti  
saioa onena  
partiduak irabazten  
laguntzen duena.

Nahiz eta maiz gertatu  
partida galtzea  
garrantzitsuena da  
ongi pasatzea.

NIRE BIZITZA • AITZIBER ZIDURRITZ ARRARTIA

**1. SARIA: DBH - 1.B**

**1º PREMIO: ESO - 1ºB**

(Doinua: Mila kilo zorion)

Ni Añorbekoa naiz  
izena dut Aitzi  
asko gustatzen zaizkit  
bertsoak idatzi.

Bost ahizpa ta anaiarekin  
bizi naiz etxean  
ahizparekin ibiltzen  
naiz txutxumutxean.

Añorbeko mendia  
gustuko dut asko  
zuhaitzak kendu arren  
polita delako.

Alaitz institutuan  
ikasle asko daude  
ta ni hemen ikasten  
nago oso trebe.

Nire amarekin naiz  
bizitzen etxean  
maite dut ta daramat  
nire bihotzean.

Nire txakurra neska  
da nire laguna  
ez du kasu egiten  
da oso tuntuna.



# AURKIBIDEA • ÍNDICE

## IPUINAK • CUENTOS

SARIA / PREMIO

EGILEA / AUTOR/A

ORR. / PÁG.

### Lehen Hezkuntza / Educación primaria

3. E 1. saria	Maria eta bere ahotsa	Nahia Luqui Breton	4
3. E 2. saria	Papera eta guraizeak	Aitana Etxeberria Lujambio	4
3. F 1. saria	Jare galdu da	Jare Biurrun Mendia	4
3. F 2. saria	Aneren abenturak	Leire Cestau Lertxundi	5
4. E 1. saria	Lagunen abentura espazioan	Iratze Mauleon Arnaiz	6
4. E 2. saria	Etxe beldurgarria	Lexuri Nuin Zapata	6
4. F 1. saria	Maidarren Alaitasuna	Irati Arostegi Pérez	7
4. F 2. saria	Opor ikaragarriak	Iraia Collado Ojeta	7
5. E 1. saria	Zuhaitza	Iraia Garbayo Ciriza	8
5. E 2. saria	Mikelen bizitza	Jon Nazabal Martinez de Albeniz	8
5. F 1. saria	Josu eta aparatu elektronikoak	Asier Jiménez Goikoetxea	9
5. F 2. saria	Mikel mendizalea	Unai Nagore Sanjuán	9
6. E 1. saria	Istorio ahaztezina	Nahia Azpiazu Moreno	10
6. E 2. saria	Gudatik ihesean	Beñat Astiz Isasi	10
6. F 1. saria	Eustakio eta Ermenegilda Manhattanen	Asier Goikoetxea Lizaur	11
6. F 2. saria	Tximeletaren abentura	Nahia Agudo Lizarraga	12

### Bigarren Hezkuntza (DBH) / Educación Secundaria (ESO)

1. A 1. saria	Aitor	Raúl Baquedano Solchaga	13
1. A 2. saria	Matxismoa	Ainhoa Acinas Rodriguez	14
1. B 1. saria	Amonaren mezuak	Maddi Telleria Leonisio	15
1. B 2. saria	Oroimena	Saioa Contreras Mercero	16
2. A 1. saria	Imaginarioa baina benetakoa	Zuhara Zaratiegi Lopez	17
2. A 2. saria	Hamed gamelua	Mikel Iso Muguruza	18
2. B 1. saria	Olatzen ametsa	Nerea Aizkorbe Munarriz	19
2. B 2. saria	Nire bizitza, nire arauak	Iruene Urdangarain Legarreta	20

## BERTSO PAPERAK • BERTSOS ESCRITOS

### Lehen Hezkuntza / Educación primaria

3. F 1. saria	Festa	Ningmin Zurbano Saenz	21
4. F 1. saria	Nire herri polita	Hegoi Bueno Orradre	21
6. E 1. saria	Berdintasuna	Beñat Astiz Isasi	21
6. F 1. saria	Euskal Herria	Izadi Biurrun Mendia	21

### Bigarren Hezkuntza (DBH) / Educación Secundaria (ESO)

1. A 1. saria	Saskibaloia	Ainhoa Acinas Rodriguez	22
1. B 1. saria	Nire bizitza	Aitziber Ziaurriz Arrartia	22

Literatura Lehiaketa  
Haur eta gazteentzat  
EUSKARAZ



Barañaín



Certamen Literario  
infantil y juvenil  
en euskera

Antolatzailea | Organiza:



Ayuntamiento de Barañaín  
Barañaingo Udala



Udalaren euskara  
zerbitzua  
Servicio municipal  
de euskera

Babeslea | Patrocina:



euskarabidea